

Koldo Aldalur

KAZETARIA

## Palestina

**S**inbologia hutsean erortzen ez bada, ideia oso polita izan daiteke. Iparraldean habia duen Frontball Development erakundea pilota jokoa munduko hainbat bazterretara zabaltu nahian dabil; bazterretako bazterretara hain zuzen ere.

Pilotan jokatzeko hiru gauza behar omen dira: pilota, horma eta gogo. Palestinan izan berri dira. Pilotak hemendik eraman zituzten; han, di-da batean, kiroldegi moduko batean horma pare bat eraiki, eta gogo gainezka aurkitu zuten Hebron hegoaldean dagoen Al Fawwar errefuxiatu eremuan. Pilota eskola bat sortu zuten, nola edo hala, bertako gazte eta ez hain gazteekin; eta pilotakada bakoitzarekin urrats bat egin zuten hain kultura ezberdinen arteko bidea laburtzeko. Festa borobiltzeko, hemendik hara joandako pilotariekin torneotxo bat antolatu zuten; eta hauek eta haiek denak gustura.

2008an jaio zen Frontball Development erakundea, eta harrezkerro, helburu sozialak eta pilotak duintasunaren poltsatxoan hartuta, gurea, eta itxuraz beste hainbaten kirola den pilota jokoa auzo gogorrenetara zabaltzen saiatu dira: Mexikon San Juan de Ixtayopan izan dira; Tepito-ko errealtate krudela ezagutu dute; eta New Yorkeko Brooklyneko kale kantoietan ere izan dira aterperik ez dutenei, gutxienez, pilota hotsak berez duen



DANI BLANCO

aterpea eskaintzen. Argentinan, auskalo non; Italian, Paranan; Bartzelonako Nou Barrisen, eta abarrear. Hurrengoan, Brasilen izango omen dira. Geroxeago, baina gehiegi luzatu gabe, Jordanian eta Libanon. Etsi gabe, hormak eraiki, eskolak antolatu, txapelketa txikiak egin, irakatsi eta ikasiren artean zein tarte txikia dagoen ohartu.

Palestinan, Hebronan, Eremuko Herri Batzordearen begiradapean, pilotan jokatu ahal izateko materialaz gain, zaintzaile pare bat utzi dituzte, hango trebeenak Iparraldera etorriko diren agindua, eta Jerusalem-era eta Betleem-era joateko asmo sendoa.

Sinbologia hutsetik haratago doan egitasmoa dirudi pilota munduko auzo txiroetara zabaltzearena. Errealtatearen ari hauskorri tiraka, iruditzen zait sarri gure kontzientzia lasaitzeko besterik balio ez duten usoak askatzen ditugula, selekzioaren partidak antolatzen, gutxienez gutxi duten greba egunak aldarrikatzen.

Arazoa da honezkero Al Fawwar-eko neska mutilek eraman berri dizkieten pilotak apurtuko zituztela joko berriari gustua hartuta. Ea berriak bidaltzeko eskatzen digutenean gai garen beraien ametsak eta gure aginduak betetzeko. Ondo legoke. ■



«  
Errealtatearen ari hauskorri  
tiraka, iruditzen zait sarri gure  
kontzientzia lasaitzeko besterik  
balio ez duten usoak askatzen  
ditugula, selekzioaren partidak  
antolatzen, gutxienez gutxi  
duten greba egunak  
aldarrikatzen  
»

Ekain berri

Euskal Kulturaren sustraiak

Sarreraren salmenta | Venta de entradas

**ONLINE**

www.ekainberri.com

943 86 88 11